As you could see, our research is fundamental research on polymerization in dispersed media, which is quite close to final industrial applications. In fact, this is recognized by the Industrial Liaison Program in Polymerization in Dispersed Media that runs since 2000. This program was initially established by Prof. Asua following a similar consortium from Lehigh University in Pensilvania. In this program, a number of international companies, which work all in the area of polymerization in dispersed media, and which may be competitors in some areas, finance a number of PhD students to carry out research in areas that are of interest for all of them. Since its start in 2000, around 40 students have carried out their PhDs within the consortium.

Doktoretza ikasle horiek dira gure taldearen alderdi garrantzitsuenetariko bat. Munduko leku ezberdin askotatik etorriak, aniztasun hori batzen saiatzen gera taldean. Eta noski, doktoretza batekin bukatzen dutenean eta munduko hainbat lekutara lanera dihoazenean, gure unibertsitateko leloak dioen bezala esaten diegu: EMAN TA ZABAL ZAZU.

Urrezko dominen entrega
**Miren Nekane Balluerka Lasa**,
**Jose Angel Iribar Kortajarena**
eta **Carlos Garaikoetxea Urriza**ri.

Entrega de las medallas de oro a
Miren Nekane Balluerka Lasa,
José Angel Iribar Kortajarena y
Carlos Garaikoetxea Urriza.



Nekane Balluerka Lasa, errektore oiha.



Nekane Balluerka Lasa, exrectora.




EHU
2025-2026 Urrezko Dominak
Medallas de Oro 2026-2026
Urrezko Domina
Nekane
Balluerka



Jose Angel Iribar Kortajarena, futbol atezain oiha.



Jose Angel Iribar Kortajarena, exportero de fútbol.







Carlos Garaikoetxea Urriza, lehendakari ohia.



Carlos Garaikoetxea Urriza, exlehendakari.




EHU
2025-2026 Urrezko Dominak
Medallas de Oro 2025-2026
Urrezko Domina
Carlos
Garaikoetxea


eman ta zabal zazu
Urrezko Dominak 2025
Medallas de Oro 2025



Euskal Herriko Unibertsitateko errektore
**Joxerramon Bengoetxea Caballero**ren
mintzaldia.

Intervención del Rector de la
Universidad del País Vasco,
Joxerramon Bengoetxea Caballero.



Lehendakaria, sailburua,
Diputatu Nagusia, Alkatea, Paulis irakaslea, errektoreak, agintariak, unibertsitateko klaustro eta komunitate kideok, egun on.

Hauxe da errektore izateko aukeratua izan nintzenetik lehendabiziko ikasturte berriaren irekiera, baita errektoretza taldeko kideentzat ere. Urtarriletik hona igaro diren hilabeteak biziak, oso, izan dira; jardun askokoak. Ez bakarrik Euskal Herriko Unibertsitatearen barrunbeak gertutik ezagutzea badelako, izan, berez ariketa dentsoa, baina, batez ere, hartutako konpromisoak betetze bidean hasi garelako.

Esta intensiva entrada en el Rectorado el curso pasado culminó este verano con el viaje a Boise e Hiroshima. En Boise State University coincidimos con el Lehendakari, tanto para el Jaialdi como para lo que fue el objeto principal de nuestro viaje, sentar los cimientos del futuro Campus transoceánico mediante, como citaba la secretaria general, el Memorandum of Understanding entre nuestras universidades para lanzar proyectos académicos colaborativos.

Hiroshima Universityn ere izan nintzen, hiri haren eta herri haren kontra bonba nuklearra leherrarazi zeneko 80. Urteurrenean. Munduko beste 10 unibertsitaterekin Bakearen Aldeko Adierazpena sinatu genuen. Hain justu, ikasturte hasierako irekiera ekitaldi honetara ekarri nahi dut bakearen aldeko eta gerraren eta armagintzaren aurkako mezua.

Estamos detectando una preocupante ola militarista en Europa y pensamos que las Universidades deben hacer frente a esos cantos de sirenas. Kenneth Rogoff, ex economista jefe del FMI y catedrático en Harvard nos advierte: "There's nothing good about having to buy a tank instead of building a school".

Junto a esta escalada armamentista vemos cómo el hambre vuelve a ser utilizada como un arma de guerra más. Así ocurrió con el *Holodomor* que hace 100 años impuso la Rusia soviética sobre Ucrania —ahora la ataca directamente— y así está siendo hoy mismo en Palestina. Como titula Omar El Akkad «Algún día, cuando no entrañe riesgo, cuando podamos llamar a las cosas por su nombre, cuando sea demasiado tarde para exigir responsabilidades, todo el mundo habrá querido estar siempre en contra».

Denunciemos el ataque de Israel contra Palestina. Llamemos a las cosas por su nombre: «genocidio», hagamos un minuto de silencio solidario con el pueblo palestino.

Israelgo gobernua Gazan praktikatzen ari den gosete, suntsiketa eta hilketak salatzeko minutu bateko isilunea egingo dugu Palestinako herritarrekiko elkartasuna adierazteko:

**MINUTU BATEKO ISILUNEA**




**HITZARTZE NAGUSIA**

2025-2026 ikasturtearen irekiera ospatzeko ekitaldia dugu Gipuzkoako Campusean. Ekitaldi berezia, irekiera guztiak hala izaten baitira. Baina gaurkoa, are bereziagoa, hainbat arrazoirengatik:

- batetik, gure taldearen lehenengoa delako;
- Bestetik ekitaldi solemnea kanpoaldera, campusera, Kimika fakultate ondoan, ekarri dugulako, unibertsitatea gizartera are gehiago gerturatzeko;
- eta, hirugarrenik, gure unibertsitateak banatzen dituen urrezko domina-ematea berreskuratu dugulako, gaurko egun handiarekin bat eginez, hiru itzal handiko pertsonei emanaz.

Este curso 8.790 estudiantes comienzan sus estudios en la EHU, a falta de contabilizar la matrícula de la sexta ordenación que se realice hoy mismo. Nuestro primer mensaje es para ellas y ellos: ongi etorri eta eskerrik asko unibertsitate publikoaren aldeko apustua egiteagatik.

Kalitatezko hezkuntza jasotzeko konfiantza eman digute ikasleek. EHU publiko izateak herri osoak parte hartzea esan nahi du, zerga bidez jasotzen den diruarekin finantzatzen den heinean.

Este carácter público de nuestra Universidad acentúa nuestra responsabilidad de ofrecer una enseñanza excelente. Todos los colectivos de la EHU asumimos este compromiso: estudiantes, profesorado y personal técnico, administrativo, de gestión y de servicios.

Komunitate senari eusteko giltzarria elkarlana da eta horretarako EHU Komunitatea osatzen dugunok bat egin behar dugu. Pertenentzia eta harrotasun sentimenduaz ari naiz, kidetasunaz. Ikasleen eskutik ekin genion bideari EHUP euskal unibertsitate publikoaren Jaiarekin, Leioan, eta ikasturte honetan hemen, Donostian, ospatuko da.

Con el mismo espíritu de orgullo de pertenencia hemos renovado la imagen de EHU, dando mayor relevancia al logo que nos regaló Chillida, y se ha compuesto EHUnenekoak, con la vocación de convertirse en nuestro himno junto con el Gaudeamus, el himno universal universitario.

Euskal unibertsitate publikoak protagonista izan behar du herri honek dituen egungo nahiz

etorkizuneko erronkei erantzuterakoan, baita auzi globalen aurrean ere: bakea eta elkarbizitza, trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, pertsonen zaintza, justizia soziala, berdintasuna, inklusioa eta erronka demografikoa... Hots, konpromiso soziala.

Unibertsitatearen erantzukizun soziala arrazionaltasuna defendatzean ere badatza, pentsamendu kritikoa, askatasuna eta sormena, kultura bultzatzen, bai eta desinformazioaren eta negazionismoen aurka borrokatzen. Kontrastatutako, egiaztatutako, datuetan eta argudioetan oinarritzeak benetako zilegitasuna ematen dio unibertsitatean egiten dugun lanari, gizarteari aurrera egiten laguntzeko, atzean inor utzi gabe.

Zabaltzen dugun ikasturte berri honetan iparrorratz izango ditugu unibertsitateko komunitatearen beharrak eta zaintza, batetik, eta EHUren erronka estrategikoak, bestetik. Ahaztu gabe nondik gatozen, eta nora joan nahi dugun.

Trayendo a colación el mensaje utópico de Katixa Agirre en nuestro programa electoral: «Gure unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, utopia bat da berez, eta ez genuke ahaztu behar zenbat sakrifizioren ostean lortu dugun».

Con ese espíritu de entrega iniciamos el curso 25/26 nuestro equipo rectoral y toda la comunidad universitaria en torno a tres ejes: los presupuestos para 2026, un Plan Estratégico 26/28 y los nuevos estatutos, con vocación de perdurar más allá de nuestro mandato.

1. 2026ko aurrekontuei begira lanean hasi gara, Unibertsitateak dituen premien diagnosi zorrotza egiten, beharrak, zeintzuk eta zertarako, zehazten. Aurrekontuen negoziazioan elkarrizketa zintzoa eta leiala, datuetan oinarritutakoa, proposatzen diegu EHUko komunitateari eta Jaurlaritzari.
   Para elaborar nuestros primeros presupuestos estamos realizando el diagnóstico detallado de las necesidades que tiene nuestra universidad: infraestructuras, recursos personales – cuidado de las personas- y un plan de digitalización para agilizar la burocracia, entre otros. Compartiremos este diagnóstico con todos los centros y lo presentaremos al Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación teniendo como método la cooperación leal y honesta, y como meta la suficiencia financiera y el uso eficiente de los recursos.
2. 2026ko hasieran 2026-28 Estrategia Plana adostu nahi dugu, hau ere elkarlanetik eta entzute bira baten emaitza bezala, EHUkideon ekarpenak jasoz, ditugun erronka nagusiei erantzuteko.
3. Eta EHUko Estatutu berriak, 2026an onartzea espero ditugunak. Lantalde bat eratu dugu horretarako bai LOSUren baldintzei bai gure behar eta izaera bereziari egokitzeko, ikas- eta iker-zentroen autonomia areagotzeko asmoz. En este empeño nos coordinaremos con el Departamento de Educación, Universidades e Innovación para armonizar los nuevos estatutos con el proyecto de ley del Gobierno Vasco.

**Unibertsitatearen barne autonomia defendatzen dugu**. Gure buruaren jabe izan eta gure komunitate akademikoaren autogobernua sendotu nahi dugu. Unibertsitate publikoak Baliabide egokiak behar ditu goi mailako ikerkuntza sustatzeko, kalitatezko irakaskuntza bermatzeko, dibulgazioa eta ikas eta lan baldintza duinak eskeintzeko, lurraldean errotuta mundura zabaltzeko gure ikurrak dioen bezala eman ta zabal zazu - azken finean, bikaintasuna erdiesteko.

La excelencia es una de nuestras metas. Liderar el sistema universitario vasco y ser una Universidad de referencia a escala europea e internacional; no solo por su posición en el ranking de Shanghai, y por el que agradezco y felicito a toda nuestra comunidad EHU -su dedicación coloca a Euskadi en el mapa mundi del conocimiento-, sino también por las redes internacionales que estamos impulsando con los campus transfronterizo, atlántico y transoceánico.

Unibertsitate honek sare erraldoia du munduan barrena eta Europan ENLIGHT aliantza estrategikoa, egun oso kontsolidatua. Datorren ikasturtean ildo hauetan lan egingo dugu bereziki:

- Mugaz gaindikoan; UPPA, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin ere elkarlanean; eta gure bazkide nagusi den Bordeleko Unibertsitatearekin, 10 urteko lankidetza oinarri duen Mugaz Gaindiko Campusaren baitan.
- Arku atlantikoaren baitan, Unibertsitateen sarea ere lantzen arituko gara.

- Boise State Universityrekin sortze bidean den Itsas-Gaindiko Campusa.
- Hiroshima eta bakearen aldeko unibertsitateen sarea.
- Latinoamerikar graduondoko sarea.

Eta dagoeneko ari gara lankidetza berriak lantzen. Astelehenean hartuko ditugu, esaterako, hemen, Cardiff-eko Unibertsitatetik ikasle, irakasle eta ordezkari talde bat. Gure errealitate soziolinguistikoan unibertsitateak jokatzen duen papera ezagutzera datoz. Jakitun baitira hizkuntza-plangintza zehar-lerro izateko lanean ari garela, euskararen inguruan ardaztutako eleaniztasun harmonikoa sustatzeko.

En esto también buscamos ser referentes, en la normalización del euskera, en su uso y en proporcionar a nuestra sociedad egresados capaces de trabajar, por lo menos, en nuestras dos lenguas oficiales. Por ello hemos adquirido, entre otros, el firme compromiso con el Departamento de Salud de asegurar la formación de calidad en medicina en euskera. Con la ayuda de nuestro Comisionado de Salud Global, nos marcamos el objetivo de ofrecer las prácticas clínicas también en euskera en los tres campus, para lo cual habrá que contar con profesorado euskaldun, siguiendo el IV Plan Rector de Euskera, con sendos planes de gestión y de uso que compartiremos este otoño, tras recabar las propuestas de nuestra comunidad.

**Ikerkuntza eta transferentzian areagotzea**

Idazkari Nagusiak aipatu ditu ikerketa eta transferentzian EHUk eman dituen urratsak, eta izandako emaitza bikainak. Ildo horretan, lanean jarraituko dugu eta badira hainbat proiektu horretan lagunduko dutenak. Donostian gaudela baliatuta aipatuko ditut:

1. Gipuzkoako Campusean abiaraziko den Basque Quantum proiektua eta Informatika eta Kimika fakultateak sustatzen ari diren 'Milla cuántica'. Esku artean ditugun proiektuekin, guztiak ere elkarlanean, urrats kuantitatibo eta kualitatibo handia emango du gure unibertsitateak.
2. Halaxe egin du Hitz zentroak ere; hau ere, hemen, Gipuzkoako campusean. Hitz Katedraren aurkezpen ofiziala egingo da datorren astean. Adimen artifizialaren eta euskarazko hizkuntza-eredu irekian urrats irmoak ematen jarraitu dute; uda honetan arlo horretako inbertsore handi batekin akordioa lortu da. Bejondeizuela, eta balio beza zuen lanak gure hizkuntza alor guztietan zabaltzeko.

La profesora Maria Paulis ha mencionado ya el cincuenta aniversario de nuestra Facultad de Química, mientras nos adentraba en el mundo de los polímeros, recordando la importancia de la investigación básica. Sabemos que tiene unos retornos importantes en el PIB y en la generación de conocimiento susceptible de ser transferido. Pero ¿sabemos medir su impacto en la sociedad?

Intuitiboki behar bada badakigu, edo halaxe uste dugu; baina ez dugu kuantifikatu. Horretarako propio sortu dugu zuzendaritza bat. Ez da bakarrik neurtzeko irakaskuntza, ikerkuntza, dibulgazio edo transferentziarena, baita helburu ditugun mikro-kredentzialena edo bizitza osoko ikaskuntzarena ere. Ezagutzaren gizartera trantsitatzeko Unibertsitate publikoak ezinbesteko gara eta modu egokian finantzatzeko botere publikoek egiten dituzten inbertsio guztien artean, Zientzia, Ikerketa, Berrikuntza eta Unibertsitatera bideratzen dena lehenesteko orduan, horixe ere neurtu eta zehazteko beharra sentitzen dugu, baita «intangible» diren beste balioetan ere. Zientzia askea kasu, unibertsitate publikoaren beste bandera. Berritzaileak izaten jarraitu ahal izateko ikerketa askatasunean lan egitea ezinbestekoa delako.



En estos tiempos de incertidumbre la ciencia es uno de los activos globales más valiosos que tenemos y debe protegerse, ya que el retorno de la inversión en ciencia no tiene parangón con ninguna otra actividad. Las Universidades son los centros del conocimiento donde se siguen criterios racionales y científicos para testar las hipótesis y propuestas. Así se respeta la libertad académica y de investigación. Y esto es incompatible con los límites a las temáticas de investigación. Exige un acceso abierto al conocimiento y resultados de la investigación, Open Science (COARA), bases de datos, publicaciones, bibliotecas, museos, cooperación entre todas las instituciones del conocimiento, superando la competencia entre ellas. Para ello se deben asegurar entornos cooperativos y abiertos. Y el apoyo público a la investigación debe incidir en su carácter abierto, transparente y de acceso abierto para toda la humanidad. El conocimiento debe contemplarse como un bien público, un bien común, inseparable de la libertad. Nadie como la universidad pública representa estos valores que definen nuestro modelo de sociedad.

Precisamente, los valores de este modelo de sociedad europea abierta y solidaria vienen perfectamente representados por las tres personas que condecoramos hoy. Personas que admiro profundamente: Iribar era mi ídolo desde pequeño, Garaikoetxea fue el lehendakari, con Etxenike de consejero, cuando se creó nuestra Universidad, y siempre he compartido su proyecto de la Europa de los Pueblos y Balluerka ha sido la primera rectora de nuestra Universidad, en cuyo equipo tuve el honor de dirigir ehuGune.

Egitasmo horiek guztiak, irakaskuntza, ikerketa, transferentzia modu hutsalean geratuko lirateke askatasuna, elkartasuna eta gizatasuna alboratuko bagenitu. Eta horien garrantzia azpimarratzeko ikasturte honetan gizatasunaren baloreak gorpuzten dituzten pertsonei omenaldia egiten diegu, urrezko dominak emateko ekitaldia berreskuratuta.

Eskerrik asko.



Juan Jose Ibarretxe Markuartu, Eva Ferreira García, Iñaki Goirizelaia Ordorika, Manuel Montero García eta Juan José Etxeberria Sagastume.

Eusko Jaurlaritzako lehendakari
**Imanol Pradales Gil**
jaunaren mintzaldia.

Intervención del lehendakari
del Gobierno Vasco,
Imanol Pradales Gil.



Donostian, 2025eko irailaren 10ean

Eusko Legebiltzarreko presidentea, Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Sailburuok, Herri agintari eta ordezkariok, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, euskal unibertsitateetako errektore eta ordezkariok, irakasle eta ikasleok, jaun-andreok, egun on guztioi!

Lehenik eta behin, zorionak Garaikoetxea Lehendakaria, Jose Angel Iribar jauna eta Nekane Balluerka Errektorea gaur jaso duzuen urrezko dominagatik!

Ondo merezitako aitortza! Jaso ezazue baita ere, euskal gizartearen aitorpena eta esker ona. Zaila da bi lerrotan euskal gizarteari egin diozuen ekarpena laburtzea.

**Nekane Balluerka errektorea:**

Euskal Herriko Unibertsitatea eraldatzeko bidean funtsezko papera bete duzu, prestakuntzan eta ikerketan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo nabarmena bultzatuz.

Horrekin batera, gure Unibertsitate publikoaren lema hartu zuen lehen emakumea izan zara.

Ez da erraza, gero, langa hori gainditzea. Ez da erraza, besteak beste, zoritxarrez, oraindik ere egiturak ez direlako lagungarriak emakumeak ardura postuetara iristeko.

Zurea bezalako ibilbideak eredu dira gizarte eta herri bezala oraindik aldatzeko eta hobetzeko dugunerako: benetako demokraziak ezinbestean eskatzen duelako berdintasuna; erabaki guneetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea.

**Jose Angel Iribar jauna:**

Gure Herriarekin, kirolarekin, konpromiso sozialarekin eta euskararekin erakutsi duzun maitasun eta etengabeko lana balioan jarri ditu Euskal Herriko Unibertsitateak. Bat nator erabat.

Euskara ezpainetan duzu beti, zure irribarre amaigabearekin batera.

Kirolaren balio onenak ordezkatzen dituzu: talde lana, konpromisoa, sakrifizioa, errespetua, nortasuna; baita saiatzeak eta parte hartzeak duen garrantzia ere.

Hori guztia gaztetxoei transmititzen saiatzen zara; eta, aski da gazte horiek nola begiratzen zaituzten ikustea, zure lana ezin-hobeto betetzen duzula jakiteko.

Athleticen eta futbolaren ikurra ez ezik, euskaldunon ikurra eta erreferentea ere bazara. Eskerrik asko!

**Carlos Garaikoetxea Lehendakaria:**

Joan den ekainean, zuri eta zure Gobernuari Ajuria Enean eskaini genizuen omenaldian esan nizuna errepikatuko dut: gure Herriaren izenean, bihotz bihotzez, eskerrik asko!

Ez da erraza zure ekarpena bi hitzetan laburbiltzea: Gernikako Estatutua, Kontzertu

Ekonomikoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen sorrera, Euskararen Legea, euskara batuaren aldeko apustua; Ertzaintza, EITB, HABE, Osakidetza edota Euskotren abiaraztea; Industria Politika, Lehen Sektoreari bultzada edo 83ko uholdeen osteko Euskadiren berreraikitzea...

Beste era batean esanda: 40 urte iraun zuen tunel ilunetik atera ostean, Euskadiko seme nafarra zaren Lehendakari maitea... guztion ilusioa eskutan hartuta, zuk eta zure taldeak hondamendian zegoen Herri hau altxatzeko bidea eraiki zenuten euskal abertzaletasun demokratikoaren sokari jarraipen eredugarria emanez, eta gure Autogobernuaren gainean, euskal nazioa eraikitzen jarraituz.

Las tres personas premiadas representáis la excelencia a la que aspira Euskal Herriko Unibertsitatea, nuestra universidad pública.

Pero... ¿qué significa la universidad?

Entiendo la universidad como un espacio de libertad y pensamiento crítico, donde se pueden y se deben confrontar y debatir ideas o pensamientos diferentes. Pero cuando se impone el dogma o la violencia sobre la episteme, la universidad pierde su razón de ser.

¿Y qué significa la excelencia? Y, sobre todo ¿es posible llegar a ella? Seguramente, cada uno podríamos ofrecer una definición distinta.

Ahora bien, todas y todos convendremos que abarca aspectos clave como: calidad académica, investigación destacada, generación de conocimiento avanzado, infraestructuras de referencia, vínculo y compromiso social, internacionalización o innovación y mejora continua.

En definitiva, la excelencia universitaria implica que la institución cumpla con sus funciones básicas y lo haga de manera sobresaliente; manteniendo siempre un fuerte compromiso



con la formación integral de sus estudiantes y con el avance de la sociedad.

Hablamos de un concepto vivo, que cambia con el paso del tiempo. Hablamos de una aspiración a la que aproximarnos de manera continua.

Euskal Herriko Unibertsitatea está dando pasos firmes como atestigua el logro de mantener su posición entre las 400 mejores universidades del mundo según el índice de Shanghái.

Esta posición es un indicador de la mejora de su calidad y de la aportación científica de su comunidad, si tenemos en cuenta que durante los últimos años las Universidades chinas han escalado posiciones, desplazando a otras occidentales hacia puestos inferiores.

No es fácil entrar entre las 400 mejores, y mucho menos mantenerse. Por eso, es imprescindible trabajar cada día por la mejora de resultados. Con ambición, perseverancia e ilusión. Asumiendo la responsabilidad que a cada uno nos corresponde.

El curso que hoy inauguramos será fundamental en la consecución de los resultados que esperamos.

Marcará el devenir de las Universidades vascas durante los próximos años y, en algunos aspectos, quizás décadas.

Debemos tener dos hechos muy presentes:

- Por una parte, a comienzos del próximo año se iniciarán las tareas para la elaboración del nuevo Plan Universitario. Este es un hito que establecerá las líneas generales de las políticas públicas durante un cuatrienio.



- Por otra parte, este curso se iniciará la tramitación de la nueva Ley universitaria.

La actual data de febrero de 2004 y ha cumplido razonablemente bien los objetivos para los que se aprobó. Sin embargo, el mundo ha cambiado mucho desde entonces. También lo ha hecho Euskadi y sus Universidades.

Compartimos la ambición de que la nueva Ley universitaria configure un modelo propio que obtenga el mejor rendimiento posible de la diversidad y complementariedad que caracterizan a nuestro sistema.

Un modelo que optimice sus resultados en términos de generación de conocimiento avanzado; y que sea capaz de ponerse al servicio de la prosperidad de la sociedad vasca, del bienestar de su ciudadanía, de su sentido comunitario, de la profundización democrática y la cohesión social.

Azken urte hauetan, Euskal Herriko Unibertsitateak heldutasun akademikoa irabazi du. Izan ere, bere jarduerari erreparatzen badiogu, datuek erakusten dute, batetik, kalitate goreneko prestakuntza eskaintzen duela eta, bestetik, hainbat esparrutan bikaintasuneko zientzia garatzen duela. Nazio aurreratu batek, Unibertsitate aurreratua behar du, eta EHU-ak ezinbesteko ekarpena egin izan du gaur arte.

Horren lekuko da, hain zuzen ere, ikasketak amaitu dituzten ikasleak arrakasta osoz txertatzen direla lan-merkatuan.

Sarbide profesional hori ez litzateke posible izango ikasleek jasotako prestakuntzak ez ba-



litu beharrezkoak diren kalitate-estandarrak beteko.

Horrekin batera, kalitatezko prestakuntza bermatzeko, ezinbestekoa da bi adierazle behar bezala uztartzea:

- Ikasle potentzialei eskaintzen zaien plaza--kopurua, eta
- Erakundeak bere irakaskuntza jardunari behar bezala erantzuteko duen gaitasuna.

Beldurrik gabe esan dezakegu EHU dela, ziurrenik, Estatuko unibertsitate publikoen artean, ikasketa-eskaintza eta eskaria hoberen lantzen dituena.

Izan ere, ikasleen ia hiru laurdenak lehen aukeran hautatutako ikasketak burutzen ditu. Hau ez da kasualitatea. Urte askotan gauzak ondo egin behar dira emaitza hauek lortzeko.

Bikaintasuna helburu duen Unibertsitate eta gizarte bat, arrakasta lortzetik askoz ere hurbilago egongo da.

Eta mundua ikusteko modu hau etengabe elikatu behar dugu, bizi dugun errealitate aldakor eta ziurgabe honek asmatzea eskatzen digulako.

Amaitzeko; jakintzaren, errespetuaren eta adimenaren egoitzan gaudelarik, bi hitz Ukrainako eta Palestinako herriak sufritzen ari diren basakeria gaitzesteko.

Jaso dezaten gu guztion elkartasuna eta babesa; bizitzaren eta giza eskubideen aldeko printzipioak etengabe defendatuz eta zabalduz.

«Eman ta zabal zazu». Helburu hau betetzeko asmoarekin hasiera ematen diot 2025-2026 Euskal Herriko Unibertsitateko ikasturte berriari!

Eskerrik asko!



**Euskal Herriko Unibertsitateko Abesbatza**ren emanaldia.

Actuación del Coro de la Universidad del País Vasco.


denon eskura


"Ehunenekoak"
























EHU